



**ITSASONDOKO
UDALA**



2007KO MAIATZAK 17KO ERABAKIA

EUSKARA IKASTAROAK EGITEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUAK

Itsasondoko Udalean indarrean dauden euskara ikasteko dirulaguntzak emateko arauak berraztertu direla eta aurrera begira laguntzak ematerakoan balio izango duen arautegi berria aurkezten du Amagoia Etxeberria zinegotziak.

Udal batzarrak gaia aztertu ondoren, honako hau erabaki du:

- Euskara ikastaroetara joateagatik dirulaguntzen oinarriak onartzea.
- Dirulaguntza hauen helburua ikasturtean zehar euskara ikastaroak jaso dituzten ikasleak diruz laguntzea da. Horrela, herritarrak Euskal Herriko berezko hizkuntza den euskara ikastera edo euskaraz alfabetatzera bultzatu nahi dira.
- Matrikula ikasleak berak ordainduko du ikasturtearen hasieran, eta ikasturtea amaitu eta hilabeteko epean banatuko dira diru laguntzak. Baldin eta herritarren batek matrikula ordaintzeko arazorik balu, kasua aztertu eta udalak matrikula ordaintzea baloratuko du.

Dirulaguntza jasotzeko baldintzak

- Ikastaroaren matrikula osorik ordainduta izatea.
- Dirulaguntza ematen duen udalean erroldatua egotea gutxienez eskaera aurkeztu baino 2 urte lehenagotik eta ikastaroa amaitu arte. Egoera honetan ez dauden pertsonen eskariak banan banan aztertuko dira.
- Ikastaroan gutxienez %80ko asistentzia izatea.

Aurkeztu beharreko agiriak

- Nortasun agiriaren kopia.
- Matrikula ordaindu izanaren egiaztatzea (norberak ala euskaltegiak).
- Asistentzia ziurtagiria (euskaltegiak).
- Dirulaguntza jaso ahal izateko kontu korrante zenbakia.
- Ikasleen kasuan, ikasle txartela.
- Langabetuek, langabetu txartela.

Emango diren dirulaguntzak

- Euskarazko ikastaro arruntengatik %50a jasoko dute lanean diharduten langileek.
- Euskarazko ikastaro arruntengatik %75a jasoko dute langabetu eta ikasleek.
- Barnetegi moduan egindako ikastaro edo ikastaro intentsiboengatik, %25a.



**ITSASONDOKO
UDALA**



2007KO ABENDUAREN 3AN

2007ko maiatzaren 17ko erabakiz, Itsasondoko Udalak onartu zuen euskarazko ikastaroak egiteagatik dirulaguntzak emateko araudia.

Emango ziren dirulaguntzak erabakitzerakoan, jubilatuek jaso ahal izango zituzten dirulaguntzei buruzko erabakirik ez zen hartu. Hala ere, euskarazko ikastaroa jasotzen aritu den jubilatutari %75eko dirulaguntza jasotzeko eskubidea izango zuela adierazi zitzaion.

Puntu hori argitzeko asmoz, honako hau proposatu da:

Emango diren diru laguntzen puntua aldatzea honako honen arabera.

Euskarazko ikastaro arruntengatik %50a jasoko duten lanean diharduten langileek.

Euskarazko ikastaro arruntengatik %75a jasoko dute langabetu, ikasle eta jubilatuek.

Barnetegi moduan egindako ikastaro edo ikastaro intentsiboengatik, %25a.

Egindako proposamenari buruz hitz egiteko txanda eman ondoren, ez da egon ezer esateko, eta bertaratutako zinegotzien aldeko iritziarekin ahobatasunez proposamena onartutzat eman da.